

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 453/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko apirilaren 23koa, Erkidegoko lanpostu hutsei buruzko hiru hilean behingo estatistikei buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 453/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2008, relativo a las estadísticas trimestrales sobre vacantes de empleo en la comunidad» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 145/234, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**453/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko apirilaren 23koa
Erkidegoko lanpostu hutsei buruzko hiru hilean behingo estatistikei buruzkoa
(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratata aztertu dute, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽¹⁾ aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren Irizpena ⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽³⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 2003ko abenduaren 8an, lanpostu hutsei buruzko egitura-adierazle bat osatu eta argitaratzearen alde egin zuen Kontseiluak.

(2) Lanpostu hutsei buruzko estatistikentzako oinarri juridikoa garatzea lehentasun gisa finkatu da Europako Ekonomia eta Diru Batasuneko betekizun estatistikei buruzko ekintza-planean —Kontseiluak onartua, 2000ko irailaren 29an— eta plan hori aplikatzeari buruzko ondorengo egoera-txostenetan.

(3) Enplegu-batzordea ere —Kontseiluaren 2000/98/EE Erabakiaren bidez eraturia ⁽⁴⁾— bat dator lanpostu hutsen adierazle bat sortzearekin, Europako Enplegu Estrategiaren jarraipena bermatzearren. Kontseiluaren 2005/600/EE Erabakiaren bidez —2005eko uztailaren 12koa, estatu kideetako enplegu-politiketarako jarraibideei buruzkoa ⁽⁵⁾— finkatu zen estrategia hori.

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1672/2006/EE Erabakian —2006ko urriaren 24koa, Progress, Erkidegoko enplegu eta gizarte-elkartasunerako programa finkatzen duena ⁽⁶⁾— finkatzen da egin beharreko ekintzetarako finantzazioa. Enplegu-egoera eta enplegu-aukerak hobeto ulertu beharra dagoela esaten da bertan, horretarako analisi eta azterketen bidez eta Europako Enplegu Estrategiaren barruan estatistika eta adierazle komunak garatuz, bereziki.

(5) Europako Enplegu Estrategiaren barruan, hutsik dauden lanpostuei buruzko datuak behar ditu Batzordeak, baina jarduera ekonomikoaren arabera banatuta, besteak beste, eskulanaren eskari-maila eta eskari horren egitura gainbegiratu eta aztertu ahal izateko.

(6) Lanpostu hutsei buruzko hiru hilean behingo datuak behar dituzte Batzordeak eta Europako Banku Zentralak, lanpostu hutsetan epe laburrean dauden gorabeheren jarraipena egiteko. Urtaroaren arabera gorabeheretara egokitutako datuak edukitzeak laguntzen ditu hiruhileko batetik bestera dauden aldaketak interpretatzen.

(7) Lanpostu hutsei buruz ematen diren datuek izan behar dute egokiak eta osoak, zehatzak eta zorrotzak, eguneratuak, koherenteak, alderagarriak eta erabiltzaileek erraz eskuratzeko modukoak.

(8) Ekonomiako alderdi guztiei buruzko datu zehatzak Erkidego osoan biltzek dituen alde onak alderatu behar ditugu, bereziki, enpresa txiki eta ertainek aitortzen egiteko eta erantzuteko dituzten aukerekin.

(9) Ahalegin berezia egin beharra dago hamar langiletik beherako unitateei buruzko datu guzti-guztiak estatistiketan lehenbailehen jasotzeko.

(1) C 175 EO, 2007/07/27koa, 11. or.

(2) C 86 EO, 2007/04/20koa, 1. or.

(3) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 15ekoa (*Egunkari Ofizialean* oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 29koa.

(4) L 29 EO, 2000/02/04koa, 21. or.

(5) L 205 EO, 2005/08/06koa, 21. or.

(6) L 315 EO, 2006/11/15ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(10) Estatistikak zein eremutatik bildu behar diren eta jarduera ekonomikoari dagokionez zenbateko xehetasun-maila behar den erabakitzeke, indarrean dagoen NACEren (Europako Erkidegoko Ekonomia Jardueren Nomenklatura Estatistikoa) azken bertsioa aplikatu behar da.

(11) Erkidegoko eta estatu bakoitzeko agintariak Erregelamendu honi jarraiki Erkidegoko estatistikak osatzen eta zabaltzen dituztenean, kontuan hartu beharko dituzte Europako Estatistiketarako Jardunbide Egokien Kodean finkatutako printzipioak —Estatistika Programako Komiteak sortua, Kontseiluaren 89/382/EEE, Euratom Erabakiari jarraiki ⁽⁷⁾, 2005eko otsailaren 24an, Erkidegoko eta estatu kideetako estatistika arloko agintarien independentzia, zintzotasun eta erantzukizunari buruz Batzordeak kaleratutako Jakinarazpenaren eranskin gisa—.

(12) Datuak gizarte-eragileekin partekatu behar dira, bai estatu bakoitzean bai Erkidego-mailan ere, eta Erregelamendu honen aplikazioaren berri eman behar zaie, halaber. Gainera, estatu kideek ahalegin berezia egin beharko dute ikasketetan orientatzeko zerbitzuek eta lanbide-heziketako erakundeek datuok jasotzen dituztela ziurtatzeko.

(13) Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamenduan —1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikei buruzkoa ⁽¹⁾—, Erkidegoko estatistikak aurkezteko erreferentziazko esparrua finkatzen da eta Erregelamendu honi jarraiki osatu beharreko lanpostu hutsei buruzko estatistikak prestatzean bete egin beharko da, beraz.

(14) Erregelamendu hau betearazteko behar diren neurriak onartu behar dira, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena ⁽²⁾— bat etorritz.

(15) Batzordeari eskumenak eman behar zaizkio kontzeptuak definitu; erreferentzia-datak, formatuak eta epeak zehaztu; bideragarritasun-azterketetarako esparrua finkatu; eta, egindako azterketak oinarritzat hartuta, dagozkion neurriak har ditzan. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, funtsezkoak ez diren alderdi berriekin osatuz ere, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(16) Zuzentarau honen helburua, hots, lanpostu hutsei buruzko Erkidego-mailako estatistikak lortzea, estatu kideek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez, eta helburu hori Erkidego-mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioarekin bat etorritz. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joaten.

(17) 89/382/EEE, Euratom Erabakiko 3. artikuluari jarraiki, kontsulta egin zaio Estatistika Programako Komiteari.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua eta aplikazio-eremua

1. Erkidegoko lanpostu hutsei buruzko hiru hilean behingo estatistikak egiteko betekizunak finkatzen dira Erregelamendu honetan.

2. Estatu kide bakoitzak langile bat edo gehiago dituzten enpresa-unitateetan dauden lanpostu hutsei buruzko datuak aurkeztu behar dizkio Batzordeari (Eurostat).

3. paragrafoan esandakoa alde batera utzi gabe, indarrean dagoen NACEn (Europako Erkidegoko Ekonomia Jardueren Nomenklatura Estatistikoa) zehazten diren jarduera ekonomiko guztiei buruzko datuak bildu beharko dira, enplegu-emailea etxe bat edo lurraldez kanpoko erakunderen bat den jardueren kasuan izan ezik.

(7) L 181 EO, 1989/06/28koa, 47. or.

(1) L 52 EO, 1997/02/22koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatutako Erregelamendua (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or.).

(2) L 184 EO, 1997/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aukerakoak izango dira nekazaritzari, abeltzaintzari, basogintzari eta arrantzari buruzko datuak, indarrean dagoen NACEren bertsioan zehaztuta dauden moduan. Sektore horiei buruzko datuak eman nahi dituzten estatu kideek Erregelamendu honekin bat etorritik eman beharko dituzte datuok. Arreta pertsonaleko zerbitzuek (egoitzetan ematen den arreta, eguneko gizarte-zerbitzuetako jarduerak) gero eta garrantzi handiagoa dutenez lanpostuak sortzeko garaian, estatu kideei eskatzen zaie nahi izanez gero esparru horretan dauden lanpostu hutsei buruzko datuak ere emateko.

Datu guztiak jarduera ekonomikoen arabera bananduko dira, indarrean dagoen NACEren bertsioarekin bat etorritik.

3. Indarrean dagoen NACEren bertsioan zehaztuta dauden moduan, 7. artikuluan aipatutako bideragarritasun-azterketak kontuan hartuta zehaztuko dira datu hauek: Administrazio publikoari eta defentsari, nahitaezko gizarte-segurantzari, hezkuntzari, osasun-jarduerei eta gizarte-zerbitzuei, arte, denbora-pasa nahiz olgetako jardueri, elkarleen jardueri, ordenagailuen konponketari, norberaren gauzakeri eta etxean erabiltzeko artikuluei, bestelako zerbitzu pertsonalei eta hamar langile baino gutxiagoko unitateei dagozkien datuak.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

1) «lanpostu hutsa»: berriki sortutako nahiz bete gabeko, edo hutsik gelditzean dagoen lanpostu ordaindua, eta enplegu-emaileak:

a) neurri aktiboak hartu ditu eta beste batzuk hartzeko prest dago, bere enpresatik kanpoko hautagai egokia aurkitzeko, eta

b) lanpostua berehala edo epe jakin batean betetzeko asmoa du.

«Hautagai egokia aurkitzeko neurri aktiboak» eta «epe jakin batean» esapideak zehaztuko dira 9. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki.

Bidalitako estatistiketan bi motako lanpostu hutsak bereiz daitezke: epe jakin baterako lanpostu hutsak eta lanpostu iraunkorrei dagozkienak;

2) «lanpostu beteak»:

antolakunde baten barruan, langile bat egokitua duen lanpostu ordaindua;

3) «meta-datuak»:

aldaketa metodologiko nahiz teknikoaren ondorioz, datuetan egondako gorabeherak interpretatzeko eman beharreko azalpenak;

4) «atzera begirako datuak»: 1. artikuluan aipatzen diren zehaztapenei erantzuten dieten datu historikoak.

3. artikulua

Erreferentziako datak eta zehaztapen teknikoak

1. Estatu kideek erreferentzia-data zehatz batzuk aipatu beharko dituzte hiru hilean behingo datuak biltzean. Data horiek 9. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez finkatu behar dira.

2. Estatu kideek beteak dauden lanpostuei buruzko datuak eman beharko dituzte, lanpostu hutsei buruzko datuak estandarizatu eta, horrela, alderaketak egin ahal izateko.

3. Estatu kideek urtaroari dagozkion doikuntzak egiteko prozedurak aplikatu beharko dituzte lanpostu hutsei buruzko hiru hilean behingo datuetan. Prozedura horiek finkatuko dira 9. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez.

4. artikulua

Iturriak

1. Datuak biltzeko estatu kideek inkestak egingo dituzte enpresetan. Beste iturri batzuk ere erabil ditzakete (datu administratiboak, adibidez), 6. artikuluan finkatutakoari jarraiki, kalitate aldetik egokiak baldin badira. Emandako datu guztien iturria zehaztu beharko da.
2. 1. paragrafoan aipatzen diren iturriak kalkulu estatistikoak egiteko bestelako prozedura fidagarriekin osatu ahal izango dituzte estatuek.
3. Erkidegoan laginak egiteko sistemak finkatu eta koordinatu ahal izango ditu Batzordeak (Eurostat), dagokion estatuko laginketa-sistemak emandako datuek hiru hilean behingo datuak biltzeko Erkidegoan finkatutako betekizunak betetzen ez dituzten kasuetan. Sistema horien xehetasunak, onarpena eta martxan jartzea zehaztuko dira 9. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik.

Estatu kideek Erkidego-mailako laginketa-sistemetan parte hartzea izango dute, sistema horiek Erkidegoaren betekizun honen ondorioz enpresek jasan beharreko karga nahiz estatistika-sistemaren kostua nabarmen murrizten laguntzen badute.

5. artikulua

Datuak igortzea

1. Estatu kideek 9. artikuluko 2. paragrafoan finkatutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki zehazten den formatuan eta epeetan bidali beharko dizkiote datuak eta meta-datuak Batzordeari (Eurostat). Lehen hiruhilekoaren data finkatuko da, halaber, 9. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik. Hiruhileko datuekin batera igorri beharko dira aurreko hiruhilekoetako datuetan egindako berrikusketak.
2. Lehen bidalketan jakinarazten den hiruhilekoaren aurreko lau hiruhilekoei (gutxienez) buruzko atzera begirako datuak ere bidali beharko dituzte estatu kideek. Datu orokorrak datuen lehen bidalketa egitean bidali beharko dira, beranduenez, eta datuak banakatuta urtebete geroago, asko jota. Behar izanez gero, atzera begirako datuak «kalkulu onenetan» oinarritzea dago.

6. artikulua

Kalitatearen ebaluazioa

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, datuak igortzen direnean, honako alderdi hauek aplikatu behar dira, kalitatearen ebaluazioari dagokionez:
 - «egokitasuna»: estatistikek erabiltzaileen oraingo nahiz geroko beharrei zenbateraino erantzuten dieten.
 - «zehaztasuna»: kalkuluen eta benetako balio ezezagunen arteko bat-etortzea,
 - «egokiera» eta «puntueltasuna»: deskribatutako gertakaria gertatu zenetik informazioa eskuragarri egon arte igarotako denborarekin dute zerikusia,
 - «eskuragarritasuna» eta «argitasuna»: erabiltzaileek datuak eskuratu, erabili eta interpretatzeko baldintza eta modalitateekin dute zerikusia,
 - «alderagarritasuna»: aplikatutako kontzeptu estatistikoetan eta neurtzeko prozeduretan dauden desberdintasunek zer nolako eragina duten, eremu geografiko, esparru sektorial nahiz denbora-tarte desberdinetako estatistikak alderatzen direnean.
 - «koherentzia»: datuak egokiak izatea datu horiek modu desberdinetan eta erabilera desberdinetarako konbinatu ahal izateko.
2. Estatu kideek igorritako datuei buruzko kalitate-txostenak aurkeztu behar dizkiote Batzordeari (Eurostat).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Erregelamendu honetan arautzen diren datuei 1. paragrafoko kalitate-betekizunak aplikatzean, kalitateari buruzko txostenak zein modalitatetakoak diren, zein egitura duten eta zenbatero aurkeztu behar diren 9. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozeduraren arabera erabakiko da. Igorritako datuen kalitatea ebaluatuko du Batzordeak (Eurostat).

7. artikulua

Bideragarritasun-azterketak

1. Batzordeak (Eurostat) esparru egokia prestatuko du 9. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurari jarraiki egin beharreko bideragarritasun-azterketak egiteko. Honako hauei buruzko datuak emateko arazoak dituzten estatuek egin beharko dituzte azterketa horiek:

a) hamar langiletik beherako unitateei buruzko datuak, edo

b) jarduera hauei buruzkoak:

i) administrazio publikoa eta defentsa, eta nahitaezko gizarte-segurantza,

ii) hezkuntza,

iii) osasun-arloko eta gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak,

iv) arte, olgeta nahiz denbora-pasako jarduerak, eta

v) elkarteen jarduerak, ordenagailuen konponketa, norberaren gauzak eta etxean erabiltzeko artikulua, eta bestelako zerbitzu pertsonalak.

2. Bideragarritasun-azterketak egiten dituzten estatuek azterketa horien emaitzen txosten bana aurkeztu beharko dute, 1. paragrafoan aipatzen diren Batzordearen betearazpen-neurriak indarrean sartu eta hamabi hilabeteko epean.

3. Bideragarritasun-azterketen emaitzak eskuragarri egon bezain laster, Batzordeak dagozkion neurriak hartuko ditu 9. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki, estatu kideekin elkarlanean jardunez eta zentzuzko epe baten buruan.

4. Bideragarritasun-azterketen emaitzen arabera hartzen diren neurrietan, 322/97 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan finkatutako kostu-eraginkortasun erlazioaren printzipioa bete beharko da, erantzunaren karga al bait gehien murrizteko araua barne, eta aintzat hartu beharko dira, halaber, hasierako aplikazio-arazoak.

8. artikulua

Finantzazioa

1. Datuak biltzen diren lehenbiziko hiru urteetan, estatu kideek Erkidegoaren laguntza finantzarioa jaso ahal izango dute datu-bilketak eragindako gastuak ordaintzeko.

2. 1. paragrafoan aipatzen den laguntza finantzarioaren zenbatekoa urtero finkatuko da urteko aurrekontuen prozeduren barruan.

3. Aurrekontuen Agintaritzak urte bakoitzean dagozkion kredituak emango ditu.

4. Bideragarritasun-azterketen emaitzei jarraiki hartutako neurriak aplikatzeko lanak finantzatzen jarraitzeko aukera aztertu ahal izango da.

9. artikulua

Komitea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatistika Programako Komitearen laguntza izango du Batzordeak.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1-4 paragrafoak eta 7. artikuluko aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.
3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikuluko aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. Hiru hilabetekoa izango da 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan aipatzen den epea.

10. artikulua

Betetze-mailari buruzko txostena

Erregelamendu honen betetze-mailari buruzko txosten bat aurkeztuko die Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari 2010eko ekainaren 24a baino lehen, eta hiru hilean behin ordutik aurrera. Txosten horretan ebaluatuko da estatu kideek bidalitako estatistiken eta Europako agregatuen kalitatea, eta hobetu beharreko esparruak zehaztuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako hiru urtean behingo txostenak argitaratu eta, ahal dela, urtebeteko epean, estatuek azaldu beharko dute Batzordearen txostenean aurkitu diren hobetu beharreko esparruak hobetzeko zer egingo duten. Era berean, aurretik egindako gomendioak zenbateraino bete diren jakinarazi beharko dute estatuek.

11. artikulua

Datu estatistikoak argitaratzea

Estatu kideek igorritako datu estatistikoak Batzordearen (Eurostat) webgunean argitaratuko dira hiru hilean behin, datuon azterketa batekin batera. Estatistikak eta azterketa Europako ahalik eta herritar gehienek esku jartzeaz arduratuko da Batzordea (Eurostat), EURES atariaren bidez bereziki.

12. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARČIČ